



*Geroari begirako bultzada*

**CEDERNA GARALUR ELKARTEA**

**2013rako LAN PLANGINTZA**

# Aurkibidea

<b>1. Erakundearen funtzionamendua baldintzatu duten aferak.....</b>	<b>3</b>
<b>Lantalde teknikoa .....</b>	<b>¡Error! Marcador no definido.</b>
<b>2. 2013rako lan-egitasmoa .....</b>	<b>6</b>
<b>2.1 Lan-arloen antolamendua, lantaldearen dimentsioa eta oinarrizko planteamenduak .....</b>	<b>6</b>
<b>2.2 Erabakiak hartzea deskontzentratzea, eta lurraldeko lana burutzeko formula eta irizpide berriak .....</b>	<b>7</b>
<b>2.3 Tokiko garapenerako zerbitzuak eta proiektuak .....</b>	<b>8</b>
<b>2.4 Zerbitzuen eta eraketa teknikoaren sintesia.....</b>	<b>13</b>

# 1 ■ Erakundearen funtzionamendua baldintzatu duten aferak

2013rako lan-plangintza aurkeztu aitzin, gure jarduera eta 2012an eta 2013. honen hasieran egindako lana gogor baldintzatu dituzten aferak hona ekartzea egokia izanen zela eruditu zaigu: Hauexek dira:

- Erakundeak lehenagotik izan dituen kudeatzaileek eta arduradunek hartutako erabakiak eta ezarritako jarraibideak; egoera konplexuetara eramaten gaituzte, eta ez dira konpontzen errazak.
- Leader 2000-2006 programa ixtea, eta horrekin lotutako ikuskapenak eta ikuskapen horien kudeaketa.
- Nafarroako Gobernuak eta Cederna Garalur Elkarteak 2009-2011 aldirako izenpetutako lankidetzaz hitzarmeneko ekintzak gauzatzea eta horiek justifikatzea.
- 'Nafarroako Mendialdea' Landa Garapenerako Programa (LGP 2007-2013) programa kudeatzea, aurkeztutako espedienteen gaineko jarraipena, eta Nafarroako Gobernu Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuaren Landa Dibertsifikazioko Ataletik etengabe egindako eskakizunak.
- Talde tekniko espezializatua, baina indargabetua, xede partekaturik gabea, Nafarroako Mendialdearen errealitateaz ikuspegi oso partzialduna, eta eraketa-organigrama konplexuarekin.
- Elkartekide diren erakundeek, beren konpromisoa gorabehera, Cederna Garalur Elkarteak 'beraiena ez den administrazio-erakundetzat' dute, eta horren barnean argi eta garbi bereizten dute tokiko garapen-eragileen lana eta zentralerako lantalde teknikoarena.

Testuinguru horretan, 2012an zehar, gure iritziz Elkarteak izan behar duenaren oinarriak finkatzen, eta lurraldean lanean ari diren taldeekin eta erakundeekin lanean jarduten ahalegindu gara, sinergiak aprobetxatzeko, eta gure herrien eta ibarren garapenean lagunduko duten ahaleginak errentagarri bihurtzeko. Erakunde honetan talde-lana bultzatzeko bideak zabaltzeaz batera, eta beste erakundeekiko topaketa, harremana eta koordinazioa irekitzeaz batera.

2012 honetan, oroitza-txostenean jasotako guztiaz gain, honako hauek ere landu ditugu:

- Lan-prozedurak zuzendu eta hobetu, bereziki LGPren kudeaketari dagokionez, eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentutik egin zaizkigun gidalerroak eta gomendioak gehitu.
- Maiz eskatu dugu komenigarria dela Nafarroako Gobernuko Ogasun Ikuskaritzako arduradunekin egiaztatzea Cederna Garalur Elkarteari helarazitako gomendioak egoki ezartzen diren, eta behin baino gehiagotan azpimarratu dugu izan ere gure iritziz ezinbestekoa baita elkarte honen estrategia, eta gobernuaren jarraibideak ezartzen eta ezartzeagatik aurre egin behar izaten ditugun zailtasunak ulertzea. Guztiz ezinezkoa izan da. Izan ere, berregituraketa-plana aurkeztuta, Landa Garapeneko Departamentuaren bidez jakinarazi zitzaigun ikuskaritza zela gure solaskidea, eta ikuskaritza-lanaren objektibotasun-printzipioa zaindu beharra zegoela.
- Lurraldean eta lurraldearekin egin dugu lan, etengabeko komunikazioan. Bai diagnostikoak lantzeko fasean, bai agentzien memoriak aurkezten, sektorekako lan bilerak aurkezten, eta abarretan.

2012ko azken hiruhilekoan, hiru afera berri izan genituen (zonaldeko bileretan jaso duzue horren berri):

- 2013rako aurrekontuetan egindako murrizketek 'Nafarroako Mendialdea' LGP (2007-2013) programaren funtsa % 20 murriztuko dute; horrek, jakina, funtzionamendu-gastuei ere eragingo die. .
- Nafarroako Gobernuan LGP programa kudeatzen dutenek ahoz jakinarazi ziguten gure erakundeak proiektu propio gisa gauzatu dituen hainbat proiektu egitura-gastutzat jotzen dutela, eta logikoagoa litzatekeela kanpoko laguntza kontratatzea ekintza horiek gauzatzeko. Bestalde, beren iritziz proiektu propioetako gastu-portzentajea gehiegizkoa da programaren orokortasunari erreparatuz gero.

Gure iritziz, ordea, Cederna Garalur Elkartek, 'Nafarroako Mendialdea' LGP programa kudeatzen duen tokiko ekintza-taldea den aldetik, autonomia dauka edo eduki behar du Nafarroako Mendialdearen landa-garapenaren mesedetan izanen den kudeaketa propio batetik proiektuak lehenesteko eta planteatzeko.

2013. urterako lan-plangintza

Gure helburua horixe izan dela baieztatu dezakegu, eta horretarako, eta ulertuz hobe dela baliabide propioak aprobetxatzea, ekintza anitz elkartearen langileek garatu dituzte.

- Azkenik, Landa Dibertsifikazioko Atalak Nafarroako Gobernuko Ikuskaritza Zerbitzuari egindako jakinarazpenaren berri eman ziguten. Jakinarazpen horretan, Cederna Garalur Elkarteari berregituraketa bat eskatzeko konpromisoa hartzen dute, elkartearen epe motzerako eta ertainerako bideragarritasuna bermatze aldera. Agiri hori 2012. urtearen amaierarako landu zen, eta toki-erakunde guztiei banatu zitzaizuen. Dokumentu horretan erakundearen estrategiak, erronkak eta helburuak jaso ziren.

## Lantalde teknikoa

Lantalde teknikoari dagokionez, esan beharra dugu plantilan gauden 24 lagunetik (5 TGE, Cederna Garalur Elkarteko 14 teknikari Antsoainen, eta 5 zerbitzu-zentrotan eta lan-orientazioko zerbitzutan) gehi toki-erakundeek zuzenean kontratatutako 3 tokiko garapen-eragiletatik 2012an 19 pertsona kontratatu izatera pasa garela (5 TGE, 9 langile teknikari Antsoainen, eta 5 zerbitzu-zentrotan), gehi zuzenean kontratatutako 3 TGE.

	TGE	Antsoain	Zerbitzu-zentroak
2012ko urtarrila	5+3	14	5
2012ko abendua	5+3	9	5
Murrizketa	% 0	% 43	% 0

## 2. 2013rako lan-egitasmoa

### 2.1 Lan-arloen antolamendua, lantaldearen dimentsioa eta oinarrizko planteamenduak

#### 2.1.1 Lan-arloak

Lan-planteamenduak enplegua eta enpresa-ekimena ditu oinarri, eta 5 gai-arlo nagusitan dago egituratuta:

- Ondarea, turismoa, merkataritza eta zerbitzuak
- Lehen sektorearen eta basogintza-sektorea
- Prestakuntza, enpresak eta enplegua
- Teknologia berriak, komunikazioa, parte-hartzea eta berdintasuna
- Garapen-estrategiak

2013. honetarako helburuak hauexek dira: erakundearen proiektu propioak arlo horietara mugatzea, talde teknikoa eta zuzendaritza-batzordekideak horietako bakoitzean modu proaktiboan jardutea.

#### 2.1.2 Talde teknikoaren dimentsioa

2013. urte hau estrategikotzat jotzen dugu, ezinbestekoa baita aintzat hartzea erakundearen helburuak eta eman nahi dituen zerbitzuak, baita ekonomia-baldintzatzaileak ere, talde teknikoaren dimentsioa horietara egokitzeko.

Horrela, aurten bertan behera utzi behar izan dugu lan-orientazioko zerbitzua, erakundeak ez baititu lortu Nafarroako Enplegu Zerbitzuari eskatutako laguntzak.

Bestalde, erakundearen enplegua erregulatzeko espedienteak ezartzeko martxan jarritako negoziazio-prozesua bukatu berri dugu, aurrekontua bideragarria izatea ahalbidetzeko.

### 2013. urterako lan-plangintza

Negoiazio horretatik aurrera, beste pertsona batek borondatezko baja ordaindua hartzea aurreikusten dugu. Enplegua erregulatzeko espedienteak urtebeteko iraunaldia edukiko du, 2013ko maiatzaren 27tik, 2014ko maiatzaren 27ra bitartean, eta 13 langile hartuko ditu barne. Horiei lana uzteko egunen portzentajea aplikatu zaie, bakoitzaren lanpostuarekin lotura duen finantziazioaren arabera.

#### **2.1.3 Antsoingo talde teknikoaren deskontzentrazioa eta lurraldean kokatzea**

Aurreikusitakoaren arabera, 2013an lurraldean zerbitzu teknikoak edukitzea ahalbidetuko digun prozesua abiaraziko dugu. Horretarako, harremanetan paratu gara toki-erakundeekin, egon daitezkeen kokapenak baloratzeko.

Prozesua 2013ko irailaren erdialderako amaiturik egotea espero dugu.

Ekintza hori ezinbestekotzat jo dugu erakundearen printzipioei berriro ere heltzeko, eta emango ditugun zerbitzuak lurraldean bertan egoteko, zerbitzu horiek gure eskualdeetan al bait gehien aprobetxatze aldera. Neurri hori baliagarria izanen da ematen ditugun zerbitzuak eta egiten dugun lana hobeto aprobetxatzeko eta argiago eta eraginkorrago ikusarazteko, eta eskaerei arinago erantzutea edota aurrea hartzea ahalbidetuko digu.

#### **2.1.4 Sareko lana eta "hodeian"**

Taldea lurraldean kokatzeaz batera, eta kontuan hartuta sakabanaketa geografikoa eta talde teknikoak etengabeko lan kontrastatua egin behar duela, plataforma birtualetan lan egiteko aukera desberdinak baloratu genituen. Lan egiteko modu horrek ahaleginak arrazionalizatzeko, joan-etorriak murrizteko, familia, lana eta gizarte-harremanak egokitzeko eta uztartzeko aukera ematen du, eta lanari jarraipena ematea ahalbidetzen du.

## **2.2 Erabakiak hartzea deskontzentratzea, eta lurraldeko lana burutzeko formula eta irizpide berriak**

### **2.2.1 Erabakiak hartzea deskontzentratzea**

Elkartearen azken batzarrean jaso genituen eskaerei erantzunez, eta lurralde-diagnostikoetan jasotako eskaerei ere erantzunez, gure buruari proposatu genion

### 2013. urterako lan-plangintza

prozesu bat martxan jartzea eskualdeak izan daitezten erakundearen gidalerroak eta lurralde bakoitzaren estrategiak ezarriko dituzten guneak.

#### **2.2.2 Beste toki-erakundeekiko koordinazioa**

Oinarritzotzat jotzen dugu beste lurralde-erakundeekin koordinazioa edukitzea; mankomunitateekin, partzuergoekin, elkarte sektorialekin edota gizarte-arlokoekin (dendariak, abeltzainak, turismokoak, eta abar).

#### **2.2.3 Sektore pribatua eta gizarte-sektorea gehietzea**

Egiazki eraginkorrak izanen eta zonalde bakoitzaren errealitatearen ikuspegi integralean oinarrituta egonen diren garapen-estategiek sektore pribatuaren eta gizarte-sektorearen presentzia eta eraginkortasun handiagoa eduki behar dute erakundearen eta sortzen joanen diren lan-dinamiketan.

2013. honetan, sektore horiekiko harremanetan aurrerapausoak eman ditugu, lankidetzarako formularik egokienak ezartze aldera.

#### **2.2.4 Aukera-berdintasunerako plana ezartzea**

2013. honetarako aurreikusitakoaren arabera, gure erakundearen aukera-berdintasunerako plan bat ezarriko da. Ikuspegi bikoitza izanen du: barrukoa (erakundearena) eta kanpukoa, toki-garapenerako eragile gisa.

#### **2.2.5 Gobernantza- eta partaidetza-eredu berriak**

Aurreko lau ekintza horiek lagungarria izanen zaizkigu lurraldearen gobernantza-eremu berri bat ezartzeko, eta horretan parte-hartzea eta inplikazioa izanen dira ardatz. Nolanahi ere, gure iritziz, proposatutako ereduaren iraunkortasuna bermatzeko, ezinbestekoa da metodologia kontrastatuak ezartzea eta metodologia horietara egokitzeak eta gaitasunak hartzeko denbora-tarteak finkatzea, bai teknikarientzat, bai elkartekideentzat eta parte hartzen duten beste erakundeentzat ere.

## **2.3 Tokiko garapenerako zerbitzuak eta proiektuak**

**Langabezia da gure herrietako eta ibarretako kezka sozial eta politiko nagusia. Erakunde honen ahaleginak enpleguari eustera, aukera berriak babestera eta**



**bultzatzera, eta sektore desberdinetan enplegua sortzeko gaitasuna duten ekintzaileei, enpresei eta autonomoei babesa ematera bideratzen dira.**

### **2.3.1 Ekintzaileei eta tokiko sustatzaile publiko eta pribatuentzako laguntza.**

Sustatzaileari nahiz ekintzaileari (publikoa zein pribatua) emandako zuzeneko laguntza da erakundearen zerbitzu nagusia. Zerbitzu bereizi gisa proposatzen da: zerbitzuaren hurbiltasunagatik; lurraldearen errealitatea, Cederna Garalur Elkartean eta beste administrazioetan erabilgarri dauden baliabideak ezagutzeagatik; informazio-gune ez ezik, lagun egiteko eta jarraipena egiteko gunea ere badelako; azken batean, Nafarroako Mendialdean enpresa-ekimena eta proiektuen garapena eraginkorragoak izaten laguntzen duen zerbitzu guztiz pertsonalizatua emateagatik.

Barneko lanaren prozedurak berrikusi dituzte TGEek eta langile adituek. Arlo horretan bereziki aipagarria da zenbat egin duen gora lana bilatzeko babesa eskatzen duten pertsonen egin zaien arretak; nor bere kabuz lan egiteko, nahiz besteren kontura lan egiteko.

### **2.3.2 Zerbitzu-zentroak.**

Zentroak **enpresa-ekimenerako erreferentzia gune gisa** proposatzen dira, horietatik zerbitzuak emateko, eta horietatik lurraldean prestakuntza, topaketarako eta parte hartzeko dinamikak, enpresa-ekimenari, besteak beste, bideratutako babesa sortzeko eta zabaltzeko. Indarrean dauden hitzarmenak berraztertu dira, eta horietan lehentasuna eman diogu nagusiki enplegurako eta enpresa-ekimenerako aukera berriak sortzeari. Une honetan, Alkaiaga guztiz operatibo dago, eta lan-dinamika eraginkorrekin. Arbizukoa zabalik dago tokiko beste kolektiboentzat, eta hitzarmena berraztertzen ari gara. Izizeko zentroari dagokionez, berriz, hitzarmena berraztertzea dugu oraingoz, eta asmoa dago Burgiko eta Izizeko zentro balioaniztunak (Nasuvinsarenak) ere txertatuko dituzten estrategiak gehitzeko.

### **2.3.3 LGPren kudeaketa.**

Une honetan, eta deialdi horretan ikasitakoaren balorazioa eginda, beste deialdi bat aurreikusi genuen 2013ko hasierarako, 2014eko eta 2015eko aurrekontuen kargura. Deialdia argitara emanda, lurraldean programaren berri emango duten ekintzak prestatuko dira, bereziki toki-erakundeekin eta erakunde sektorialekin.

### **2.3.4 Kalitate-sistemak eta jarduera onen eskuliburuak turismo-sektorean; turismo jasangarrirako tresnak. Ikuspegi parte-hartzailea, osoa eta zeharkakoa.**

Turismo-sektorea lehentasunezkoa da landa-garapenerako eskualde-planetan eta politiketan. Cederna Garalur Elkarteari dagokionez, eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin, beren establezimenduetan kalitatea oinarri izanen duten kudeaketa-metodoak gehitu nahi dituzten sustatzaileei ematen ari gara zerbitzua. 'Kalitate-mahaia' lurraldeko beste talde batzuei zabaldua (besteak beste dendarien eta zerbitzuen sektoreak sartuta), gure iritziz, nahitaezkoa dugu zerbitzu horretan aurrera egiten jarraitzea, eta lan partekatuko marko honetan.

### **2.3.5 Europe Direct**

2013. honetan asmoa da zerbitzu horri jarraipena eta zabalpen handiagoa ematea sare sozialen bidez. Halaber, hainbat forotan parte hartzea aurreikusten dugu, baita Europar Batasunean eskuragarri dauden baliabideen berri ematen lagunduko duten ekintzak antolatzea ere.

### **2.3.6 2013ko eta 2014ko LGP programako proiektu propioak.**

Hasiera batean, erakundea berregituratzeko planean jasotakoaren arabera, sektore anitzeko proiektu bakar bat aurreikusi genuen, horren asmoa izanik Departamentuaren eskaerei erantzutea, bai zenbateko globalari dagokionez, bai elkartearen langileen gehienezko inputazio-portzentajeei dagokienez.

Azkenik, Departamentuaren gomendioak betez, hau da, proiektua zenbateko txikiagoko eta sektoreka banandurik egonen diren proiektuetan banatzea, denetara 6 proiektu proposatu dira 2013. eta 2014. urteetarako.

Laning- Gobernantza parte-hartzaileko proiektua.
Basolan- Biomazari buruzko proiektua eta basoari turismo-aprobetxamendua emateko proiektua
Merkat-ari- Esku-langintzari eta mugako merkataritzari balioa ematea.
Enpresa-ekimena. Ideiatik merkatura, merkatutik ideiara.
Prestakuntza, 2013
Prestakuntza, 2014
Lankidetzaproiektua. "Gure bideetan barrena"
Tokiko hedabideekiko komunikazio-proiektua ixtea.

2012an abiarazitako enpresa-ekimenaren inguruko proiektua ixtea.

Lehendik zeuden beste proiektu batzuk, oinordetzan hartuak:

<b>Hurbileko erromanikoa</b>	Proiektuari zabalpena ematea aurreikusten dugu, bereziki web orriari eta horko edukiei.
<b>Rural Convention Bureau</b>	Asmoa da 2013. honetarako, produktua gehiago zehaztea eta lotura duten arazoak alderatzea ahalbidetuko diguten esperientzi pilotuak garatzea.
<b>Cartorural</b>	Elkartearen beraren proiektuetan tresna hori txertatuko dugu, sistema hobeki aprobetxatzeko.
<b>Zaldi ostatuaren Europako Sarea</b>	Talde-buruak eginen duen azken balorazioaren ondoren, beharrezkotzat jotzen dugu emaitzak sektoreari aurkeztea, emaitza horiek balora ditzan eta egon daitezkeen jardueraildoak alderatzeko.

Proiektu berriak

2012. urtean, hiru proiektu berri diseinatu dira, 2013an martxan jartzeko.

<b>“Nafarroako Mendialdeko mikologia-parkea”</b> (Emplea Verde Fundazioa)	Gaur gaurkoz, oraindik ez dugu proiektuarekiko erantzun positiborik jaso. Nolanahi ere, 2012an Lesakan antolatutako 'Kedadaz' geroztik, Garrapo enpresa eta Moderna Fundazioa harremanetan jarri ziren, eta orain Nafarroako Foru Erkidego osoan mikologia arautzeko aukera proposatzen ari dira. Cederna Garalur Elkarteak parte-hartze aktiboa hartzen ari da prozesuan. Luze gabe emanen diegu elkartekideei horren berri.
<b>“ITERA-AA”</b> (Interreg Sudoe)	Nekazaritzako elikagaien sektoreari babesa ematera bideratutako ekintzak.
<b>Cyber-INNO</b>	

Bestalde, 2013. honetarako asmoa da enpresa-ekimena ahalbidetuko duten lankidetzadynamikak (publiko - pribatua) bultzatzen lagunduko duten ekintzei arreta berezia ematea:

- Kedada gehiago antolatzea, 'zero kostuko' planteamenduetatik abiatuta, eta beste erakundeekin, elkarteekin eta enpresekin lankidetzan.

2013. urterako lan-plangintza

- Nafarroako Mendialdeko biomasa; ekonomia eta enplegua sortzeko gaitasuna duen baliabidea.

Lankidetzan beste proiektuekin

<b>PIA2</b>	Europako Leonardo programaren bidez finantzatua, Alemaniako Lanbide Heziketa Duala Nafarroako lanbide-heziketara egokitzen lagunduko du. Bi ikastetxe pilotuetako bat Ilunberriko Sierra de Leyre BHI izanen da.
<b>ENECO2</b>	Proiektu horrek, 'Espainia - Frantzia - Andorra 2007-2013' lurraldeen arteko lankidetzako programaren barnean jasoak, aukera emanen du eko-berrikuntzarako (nola egin, nola hobetu) tresnen katalogo bat sortzeko, eta eko-berrikuntzaren, ingurumenaren eta enpresa-erantzukizun sozialaren arloetan identifikazio, lokalizazio eta ezagutza gune bat sortzeko.
<b>GURATRANS</b>	Mugaz haraindiko proiektua, INTERREG IV-A programaren bidez finantzatua, Pirinioetako mendebaldeko muturreko eremu mugakideetan ura modu parte-hartzailean eta osoan kudeatzera bideratuta dago. Proiektu horretan Berak eta Lesakak hartzen dute parte.

## 2.4 Zerbitzuen eta eraketa teknikoaren sintesia

Lan-eremua	Xedea	TGEak	Laguntza espezializatu propioa	Kanpoko laguntza espezializatu
Enpresa-ekimenerako zerbitzuak	TOKI ERAKUNDEAK ETA ELKARTEKIDEAK  SUSTATZAILE PRIBAT.	Arreta, lagun egitea aholkularitza dinamizazioa, jarraipena, finantziazio-Iturriak bilatu	bideragarritasun planak  cartorural, IKTB zerbitzuak georeferentziazioko sistemak komunikazioa	
Parte hartzeko dinamikak Lankidetzak, tailerrak, prestakuntza enpresa-ekimena	ESTRATEGIA/GARAPEN BATZORDEAK  ENPRESA-EKIMENA	Jarraipena, koordinazioa  Intereseko eremuak antzeman, proposamena koordinazioa, dinamizazioa	GIZARTE BERRIKUNTZAKO LABORATEGIAK, 3 zerb.-zentro + IRUÑEKO ZENTROA: kudeaketa administrazioa,  Prestakuntza eta dinamika espezializatuak: jarduera Onen eskuliburuak, Marketing on-line, enpresa-kudeaketa	GARAPEN PARTE HARTZAILEKO DINAMIKAK PROZESUAK ESTRATEGIA 2020
Nafarroako Mendialdeko proiektuak		Intereseko eremuak antzeman, proposamena koordinazioa		COORDINAZIOA, LANKIDETZA
LGP		Baremazioa berraztertu, Informazioa, izapidetu, jarraipena, justifikazioa	Kudeaketa globala, deialdia, komunikazioa	Kontabilitate eta kudeaketa Ekonomiko finantzarioa

